


**JOSU CARBAJALES, IBONE PEREA
eta IÑIGO MONTES** Urrezko domina Espainiako
Hapkido txapelketan eta entrenatzailea

**/// Ez genuen espero
txapelketa irabaztea,
disfrutatzen eta lan ona
egitera joan ginen ///**




Berrogeita hamarnu urte pasabito dituzte Ibonek eta Josuk. Lehenengoa zorrotzarra, bigarrena Gurutzetako, diak orain dela gurxi hasi ziren Hapkidoan. Iñigo Montes auzotarra dute maisu. Raxei klubean eta berak animatu zituen txapelketan parte hartzera. Gaur euren gimnasioa hurbildu gara momentu horiek gogoratu eta arte martzial horren berezitasunak ezagutzera.

TESTUA: IAN F. GUSTO; ARGAZKIA: I. HORNARAI

**“ Iñigok animatu
gintuen txapelketan
parte hartzera. Bera
sinetsita zegoen emaitza
ona lor genezakeela. Gu
ez gara sekula txapelketa
batean egon eta ez
genuen gure burua
prest ikusten, urte gutxi
daramagu hapkidoa
praktikatzen**

**“ Bestelako arte
martzialetan ez bezala,
hapkidoan ez da gaitasun
edo indar berezirik behar,
teknika praktikatzen
duenaren pertsonara
moldatzen da**



Espainiako txapeldunak... Zer da zehazki irabazi duzuen?

Espainiako Hapkido Txapelketan urrezko domina lortu dugu, bikotekako Master Kiu 2 mailan. Mailak adinaren eta gerrikoaren kolorearen arabera dira. Gure kasuan, 51 urtetik gorakoon eta gerriko beltzik ez dugunon maila da, erdaraz “promesa” izenez ezagutzen dena. Banaka, binaka, hiruak ala taldeka parte har daiteke.

Zer da Hapkidoa, zehatz mehatz?

Korean XX. mendean sorturiko arte martziala da, defentsa pertsonalerako teknika-multzoa proposatzen duena. Bestelako arte martzialetan ez bezala, ez da gaitasun edo indar berezirik behar, teknika praktikatzen duenaren pertsonara moldatzen da. Horregatik, adin eta gorpuzkera guztietako

jendeak garapen-maila egokia lor dezake. Txapelketei dagokienez, ez da sexuagatik bereizketarik egiten, adibidez. Esan daiteke beste kirol edo arte martzialetako lehia-logikak ez duela zentzurik gurean, oso inklusiboa da. Horrez gain, etengabeko eboluzioan dago.

Txapelketan, beraz, koreografia bat antzetzten da?

Eraso eta defentsa egoera baten simulazio errealistak dira. Ez da teknika erakusketa huts bat, ezta borroka bat ere, bitarteko gauza bat da. Indarra erakutsi behar da baina ondo neurtu behar da: pertsonen artikulazio eta abarrekin lan egiten denez, kalte larriak eragin ditzakegu. Eta hori guztia denbora tarte mugatu batean, geldiunerik gabe.